

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuak aurrera egin dezan, honako aliantza edo akordioak egingo ditugu: Ezinbestekoa da guztion arteko elkarlana proiektuak behar bezala funtziona dezan.

MEDIKUAK:

Gure enpresarentzat funtsezkoak dira txipak jartzeko lana egingo duten medikuak. Horregatik, mediku talde batekin egingo dugu aliantza. Medikuntzan lan egiten duten profesionalen laguntzarekin bezeroei aurkeztuko zaizkie txipen onura edo arriskuak. Haiekin hitz egingo genuke eta bere zerbitzuen truke diru kantitate bat eskeiniko genieke, gure produktuaren publizitatea adosteko. Haiek nola egingo dute eta gorputzeko ze ataletan jarri dezakezun txipa azalduko dute

SAMSUNG:

Bestetik, Samsung enpresarekin egingo dugu beste aliantza bat txipen ekoizpena adosteko. Bera izango da gure txipen ekoizlea.

ELEKTRONIKAKO DENDAK:

Txipen banaketa egiteaz arduratuko direnez, hauekin ere aliantzak egingo ditugu, gure produktu eta zerbitzuaren nondik norakoak azaltzeko eta bitartekaritza lan egokia egin dezaten.

DHL BANAKETA ENPRESA:

Txipak dendetara garraiatzeaz arduratuko da.

BAZKIDEEN ARTEKO ALIANTZAK:

Gure enpresako bazkideen arteko aliantza aurrera eramateko, proiektuan parte hartzen duugn alderdien arteko hitzarmena sinatuko dugu. Bakoitzaren ezaugarriak partekatuko ditugu, emaitza hobekitzeko, sinergiak sortuz. Horrela bakoitzak bere trebetasunen arabera aportatuko du. Horretaz gain, enpresa bateratuaren beste ezaugarri garrantzitsu bat, sortutako irabazien eta galeren banaketa da. Denok izango dugu enpresaren kontrola zeti berdinetan.

